

<b>Irakasgaiaren izena</b>	<b>Kodea</b>	<b>Ikasturtea</b>
Gizarte Zientziak eta bere didaktika	151320	2024-25
<b>Titulazioa</b>	<b>Maila</b>	<b>Seihilekoa</b>
Haur Hezkuntza	3.	1.
<b>Irakasgai mota</b>	<b>ECTS Kredituak</b>	<b>Hizkuntza</b>
Derrigorrezkoa	6	Euskara
<b>Irakaslea(k)</b>		
Olalla Juaristi Larrinaga		

### Justifikazioa

*Natura, gizarte eta matematika zientzien ikaskuntza* materiaren asmoa da Haur Hezkuntzako curriculumaren oinarri zientifikoaren (naturalen, sozialen eta matematikoen) ezagutza erraztea, baita zientzien historia, bere metodologia eta estrategia didaktikoen ezagutza ere.

*Gizarte Zientziak eta bere didaktika* irakasgaia materia honen barne dago, eta etorkizuneko profesionalari begira, Haur Hezkuntzaren curriculumean Gizarte Zientzien hezkuntza-balioaren ulermena erraztea du helburu, ingurune eta eremu kontzeptuak muin globalizatzaile eta didaktiko gisa aztertzen lagunduz.

Haurraren, espazioaren, denboraren eta kontzeptu sozialen eskuratzeko prozesuaren alderdi nagusiak ezagutuko dira, zientzia ezberdinen integrazioetik ezagutza komuneko helburu batera.

Irakasgai honek ahalbidetuko du ingurunearen ezaguera eremuko curriculumaren proposamena aztertzea. Baliabide desberdinak aplikatuz, ingurunea ezagutzea eta inguruneaz jabetzea erraztuko da eta bizikidetzarako eta erlazio sozialerako oinarritzko ereduak planteatuko dira.

### Aurrebaldintzak

Ez dago aurrebaldintzarik.

### Gaitasunak

#### Gaitasun orokorra

- SEN ETIKOA. 2. Maila: Balio etikoak eta sentikortasun morala identifikatzea, ezagutzea eta aplikatzea.

#### Berriazko gaitasunak

- Errealitatearen bereganatzea eta egokitzapena azpimarratzen duen ikaskuntza sustatzea, haren ulermena eta arazoen ebazpena ikuspegi globalizatzaile batetik eginez, eta Haur Hezkuntzako haurren eboluzio une bakoitzari egokituz.
- Gizon-emakumeen, kultura eta errealitate ezberdinetako pertsonen eta hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonen artean, berdintasunezko eta bidezko gizartea sustatzen duten estrategiak diseinatzea.
- Haur Hezkuntzako curriculumean errealitate sozio-kulturala barneratzea, taldean arauen onarpenerako, errespeturako eta gizabidezko ikaskuntzarako egoerak sortuz.



## Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaiari



GJH 3. Osasuna eta ongizatea. GJH 4. Kalitatezko hezkuntza. GJH

5. Genero-berdintasuna. GJH 10. Desberdintasunak murriztea. GJH 17. Itunak, helburua lortzeko. LSH 5. Hezkuntza ekologikoa.

Egun, garrantzitsutzat jotzen da adin guztietan bititza osasuntsua bermatzea eta guztion ongizatea sustatzea. Horri dagokionez, Haur Hezkuntzako etorkizuneko irakaslea gai izan behar da gogoeta kritikoa egiteko, generoak osasunean eta ongizatean duen garrantziaren ulermena ere barne hartuta. Genero-berdintasunaz harago, Haur Hezkuntzako etapatik hasita, beharrezkoa da kalitatezko hezkuntza inklusibo eta bidezkoa bermatzea, ikaskuntzarako aukerak bultzatuz. Gure ikaslea jabetu behar da hezkuntza oinarri dela ondasun publiko, munduaren ondare, oinarritzko giza eskubide eta garapen iraunkorreko hezkuntzarako. Eta gai izan behar da guztiontzako bidezko eta kalitatezko hezkuntza askea eta horrekin lotutako ikuspegiak sustatuko dituzten politikak eskatzeko, eta publikoki babesteko, bai eta hezkuntza-erakunde seguru eta inklusiboak guztion eskura jar daitezen saiatzeko ere.

Azken finean, gure ikasleak izan behar du munduaren ikuspegi justua, berdintasunean oinarritutako ikuspegia eta hezkuntzak giza eskubideak eta duintasuna sustatzen dituela bermatzearen garrantzia azpimarratu behar du. Etorkizuneko adin goiztiarreko haurren irakasle gisa, gai izan behar da Haur Hezkuntzako gunean desberdintasunak murrizteko helburuarekin, estrategiak planifikatu, abiarazi eta ebaluatzeko, eta baita garapen iraunkorrerako itunak abiarazteak duen garrantziaz kontzientziazteko ere.

## Edukiak

### 0. **Irakasgaiaren aurkezpena:** irakasgaiari sarrera eta bere testuinguruan jartzea.

*Diziplinarteko Lanaren aurkezpena.*

### 1. **GAIA : Gizarte Zientzien hezkuntza-balioa Haur Hezkuntzan.**

- Gaur egungo Gizarte Zientzien identitatea eta definizioa.
- Hausnarketa: Gizarte Zientziak Haur Hezkuntzan. Hezkuntza-balioa.
- Gizarte Zientzien eremu kontzeptuala.

### 2. **GAIA: Gizarte Zientzien ezaguera Haur Hezkuntzan.**

- Gizarte Zientzien edukien garapena Haur Hezkuntzan.
- Haur Hezkuntzako haurrek ingurune soziokulturalaren ulermenerako dituzten ikusmoldeak.
- Espazioaren eta denboraren ulermena haurtzaroan.
- Balioen garrantzia haurtzaroan.

### 3. **GAIA: Gizarte Zientzien eredu didaktikoak**

- Eredu Didaktikoen egokitzapena gaurko gizartearen joerei eta eskakizunei dagokienez.
- Gizarte Zientzien proposamen didaktikoak.

## Ikas-irakaskuntza estrategiak

Irakasgaiaren garatutako irakatsi-ikasi estrategiak MAUD (Modelo Aprendizaje Universidad Deusto) ereduari erantzuten dio, lau fase nagusitan garatzen delarik:

**Irakasgaia edo esperientzia-testuingurua beren testuinguruan zentzu zabalean jartzea ahalbidetzen duten jarduerak:** Atal honetan, jarduerak, ikasleria errealitatera hurbiltzea izango dute helburu, bere esperientzia pertsonaletatik abiatuz eta aurretiazko ikusmoldeen hausnarketa eginez, beste ikaskideekin kontrastatu eta eztabaidatzeko (eztabaidak, aurretiazko ideien azaleratzea, eta abar). (ECTS kredituen % 5 gutxi gorabehera).

**Ikerketa eta hausnarketa pizten dituzten jarduerak:** Atal hau, Gizarte Zientziekin zerikusia duten gaur egungo gertaeren azterketa bultzatzeko diseinatutako jardueren bitartez egingo da, baita informazioa landa lanaren bidez taldean biltzeko ere. Gela barruan aurkezpena eta eztabaida egingo da irizpide zientifikoaren ekarpenak luzatuz. Sakontze teorikorako zalantzen probetxua. (ECTS kredituen % 15 gutxi gorabehera).

**Irakasgaiaren edukien ikaskuntza teorikoa edo kontzeptualizazioa.** Atal honetan kontzeptualizaziora zuzendutako jarduerak biltzen dira, ikasleria kalitatez kontrastatutako erreferente teoriko eta praktikoeekin kontaktuan jartzeko asmoz. Horretarako, irakaslearen aurkezpen teorikoak, aukeratutako dokumentazioaren irakurketak, bilaketa bibliografikoa, eta abar erabiliko dira. (ECTS kredituen % 30 gutxi gorabehera).

**Esperimentazio aktiboa:** Atal honetan biltzen dira elementu eta proposamen kurrikularren azterketa, diseinua eta lanketarako jarduerak, ikaslearen esperimentazio aktiboa ahalbidetzea helburu dutelarik. (ECTS kredituen % 35 gutxi gorabehera).

**Ebaluazioa:** Atal honetan, ikasleriaren ebaluazio batutzailea ahalbidetzen duten jarduerak biltzen dira. (ECTS kredituen % 15 gutxi gorabehera).

## Ebaluazioa

Ikasgaiaren ebaluaketa egiteko, aurreikusitako berariazko gaitasunak eta gaitasun orokorrak noraino lortu diren baloratzeko baliaugarriak eta egokiak diren datuak eta ebidentziak hartuko dira abiapuntutzat. Informazio iturri gisa, irakasgaiaren garatutako jarduera garrantzitsuenak erabiliko dira, kasu bakoitzean kontutan hartuko diren adierazleak eta ebaluaketa irizpideak azalduz.

Ebaluazioa jarraia izango da, azken lorpenetan eta emaitzetan oinarritutako ebaluazioa alde batetara utziz. Beraz, prozesuaren garapena baloratzeko ikaskuntza jarduerak erabiliko dira, batez ere lorpen eta emaitza partzialetan arreta jarritz, eta egokitzat jotzen diren errefortzu edo konpentsazio neurriak kontutan hartuz. Hauei, azken emaitzen ebaluazio bat gehituko zaie, dagozkion gaitasunak baloratzeko jarduera eta froga egokiak erabiliz.

Kalifikaziorako irizpideak:

- Gaitasun Orokorren balorazioa kalifikazioaren % **10** izango da.
- Berariazko Gaitasunen balorazioa kalifikazioaren % **90** izango da.

**Jarduerak: %50 (BERARIAZKO GAITASUNEN % 40 ETA GAITASUN OROKORRAREN % 10).**

**Azterketa: %50 (SOILIK BERARIAZKO GAITASUNAK).**

Irakasgaia gainditzeko ezinbestekoa da atal biak gainditzea.

Ezohiko deialdia: Kalifikazio irizpideak berdinak dira ezohiko deialdirako, baina gainditzeke dauden atalen gainditzea beharrezkoa litzateke.

### **Adimen artifizialaren erabilera:**

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea.

Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikulua araberan, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

## Dokumentazioa

Programaren baldintzen eta jardueren jarraipena egokia izan dadin, ikasleriak honako dokumentazio iturri hauek erabiliko ditu:

- ❖ ALUD Plataforman erabilgarri dagoen irakasgaiaren materiala (Ikaskuntza Gida eta gaiak). Material honek ikasleria ikaskuntza prozesuan zehar gidatuko du, landu beharreko eduki teorikoari eta egin beharreko jardueri dagokionez.
- ❖ Bibliografia, ezagutzak eta gaitasunen garapena lortzeko, eta ikusitako gaietan eta edukietan sakontzeko.

### OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA:

- Aranda Hernando, A. M. (2003). *Didáctica del Conocimiento del Medio Social y Cultural en Educación Infantil*. Síntesis.
- Aranda Hernando, A. M. (2016). *Didáctica de las Ciencias Sociales en Educación Infantil*. Síntesis.
- Bassedas, E., Hugueta, T., Solé, I. (1998). *Aprender y enseñar en educación infantil*. Graó.
- Bravo Herrera, MP. (2016). *Los proyectos de trabajo: tejiendo sueños, construyendo vida en la escuela infantil*. Pirámide.
- Benítez Herrera, A. (coord.) (2012). Orientaciones para la evaluación del alumnado en la Educación Infantil. Junta de Andalucía. Consejería de Educación.
- Bonilla, A. L., Guasch, Y. (coords.) (2018). *Entorno, sociedad y cultura en Educación Infantil. Fundamentos, propuestas y aplicaciones*. Ediciones Pirámide.
- Cabrerizo Diago, J. (2019). Procedimientos, técnicas e instrumentos para la evaluación de la intervención socioeducativa. Hemen: A.M. Martín y J.M. Rubio (Coords.), *La intervención socioeducativa: diseño, desarrollo y evaluación*. UNED.
- Cooper, H. (2002). *Didáctica de la historia en la educación infantil y primaria*. Morata.
- De los Reyes, J.L. (2009). Mi casa, mi calle, mi ciudad: experiencias sobre el espacio infantil en el Madrid histórico. *Terr@plural*, 3(1), 9-27.
- Delval, J. (1989). "La representación infantil del mundo social", en Turiel, E. y otros (comps.): *El mundo social en la mente infantil*. Alianza.
- Delval, J. (2012). El constructivismo y la adquisición del conocimiento social. *Revista Apuntes de Psicología*, 30(1-3), 99-109.
- Domínguez Garrido, M.C. (2004) (Coord). *Didáctica de las Ciencias Sociales*. Pearson.
- Domínguez Castillo, J. (2015). *Pensamiento histórico y evaluación de competencias*. Graó.
- Egan, K. (1991). *La comprensión de la realidad en Educación Infantil y Primaria*. Morata.
- EHU. (2000). *Haur Hezkuntza Oitk 6 urtera*. EHU.
- Escamilla González, A. (2009). *Las competencias en la programación de aula*. Graó.
- Feliú, M., Jiménez, L. (coords.) (2015). *Ciencias sociales y educación infantil (3-6). Cuando despertó el mundo estaba allí*. Graó.
- García Túñez, P. (2015). *La relación del niño con su entorno*. Octaedro.
- Gervilla Castillo, A. (2006). *El currículo de Educación Infantil*. Narcea.
- Goldschmied, E. (2002). *Educación en la escuela infantil*. Octaedro - Rosa Sensat.
- González-Fernández, R., López-Gómez, E., Cacheiro-González, M.L. (2022). *Procesos de enseñanza-aprendizaje en Educación Infantil*. Narcea.
- González Silva, F. (2011). La alteridad desde el desarrollo evolutivo, un estudio durante el primer año del niño. *Revista Intercontinental de Psicología y Educación*, 13(2), 75-95.
- Gudín de la Lama, E. (coord.) (2015). *Didáctica de las Ciencias Sociales en Educación Infantil*. Unir.
- Hernandez Cardona, F.X. (2002). *Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia*. Graó.

- Hoyuelos, A., Riera, M.A. (2015). *Complejidad y relaciones en educación infantil*. Octaedro.
- Ibáñez Sandín, C. (2003). *El proyecto de Educación Infantil y su práctica en el aula*. La Muralla.
- Liceras, A., Romero, G. (2016). *Didáctica de las Ciencias Sociales. Fundamentos, contextos y propuestas*. Pirámide.
- López, F. (1985). *La formación de los vínculos sociales*. Servicio de Publicaciones Ministerio de Educación y Ciencia.
- Martín Biezma, C. (2013). *Didáctica de la Educación Infantil*. Macmillan.
- Mendióroz Lacambra, A. M. (2013). *Didáctica de las Ciencias Sociales. Formación del área e integración del conocimiento*. Universidad Pública de Navarra.
- Miralles, P., Rivero, P. (2012). Propuestas de innovación para la enseñanza de la historia en Educación Infantil. *REIFOP*, 15 (1), 81-90.
- Moscoso, M. F. (2016). Manual pedagógico: El conocimiento del mundo social y cultural en Educación Infantil. *Papers Infancia*, 12(número especial), 1-60.
- Ortega-Sánchez, D. (2022). *Didáctica de las Ciencias Sociales y Competencia Digital Docente*. Narcea.
- Parra Ortíz, J.M. (2006). *La educación infantil: Su dimensión didáctica y organizativa*. GEU.
- Pitluk, L. (2007). *La planificación didáctica en Educación Infantil*. Editorial MAD.
- Reizabal Arruabarrena, L. (2007). *Gizarte-ezagutzaren garapena nerabegarora arte*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Rivero Gracia, M.P. (2011) (Coord.). *Didáctica de las Ciencias Sociales para educación infantil*. Mira Editores.
- Santisteban, A., Pagés, J. (2011). *Didáctica del Conocimiento del Medio Social y Cultural en la Educación Primaria*. Síntesis, S.A.
- Siles Rojas, C. (2017). La evaluación en Educación Infantil y Educación Primaria. Hemen: B. Bermejo y C. Ballesteros (Coords.), *Manual de didáctica general para maestros de Educación Infantil y de Primaria* (231-258 orr.). Pirámide.
- Soler, M-A. (2009). *Didáctica multisensorial de las ciencias. Un método inclusivo y transdisciplinar para alumnos ciegos, discapacitados visuales y, también, sin problemas de visión*. Ediciones Paidós Ibérica, S.A.
- Thwaites, A. (2009). *Conocimiento del entorno*. Narcea.
- Tonda Monllor, E. M. (2001). *La didáctica de las ciencias sociales en la formación del profesorado de educación infantil*. Publicaciones de la Universidad de Alicante.
- Torruella, M. F., Jiménez, L. (2015). Descubro, descubren, descubrimos juntos. *Aula de Infantil*, 82, 11-14.
- Trepat, C., Comes, P., (2002). *El tiempo y el espacio en la didáctica de las ciencias sociales*. Graó.
- Vizcaíno, I. M. (2008). *Guía fácil para programar en Educación Infantil (0-6 años). Trabajar por proyectos*. Wolters Kluwer.
- Zabalza, M. A. (2006). *Didáctica de la educación infantil*. Narcea.